Sin./Fdo.: MATXALEN PINEDA MUNIOZGUREN 2024-12-10
LANGILEEN AUKERAKETARAKO ETA TREBAKUNTZARAKO ZERBITZ. BURUA
JEFE/A SERVICIO DE SELECCIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
Sin./Fdo.: ESTHER GONZALEZ DE AUDIKANA URZELAI 2024-12-10
FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE FUNCIÓN PÚBLICA
Sin./Fdo.: CESAR GONZALEZ DE HEREDIA MARURI 2024-12-10
ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZEND.NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE RÉGIMEN JURÍDICO Y FUNCIÓN PÚBLICA
Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2024-12-11
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-12-19
GZko 5.gaia onartuta - Aprobado, asunto 5) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LANGILEEN AUKERAKETARAKO ETA TREBAKUNTZARAKO ZERBITZUA
ERREF.: MJVI/EZM
107/2024 txostena

Gaia: ERABAKIA, Bizkaiko Foru Aldundiaren prestakuntza-plana egiteko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean sinatutako lankidetza-hitzarmena luzatzea onartzeko dena.

## AURREKARIAK

LEHENENGOA.-Bizkaiko Foru Aldundiak, 2020ko urtarrilaren 8an, lankidetza-hitzarmen bat formalizatu zuen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin, jakinik zer garrantzitsua den langileak prestatzea eta haien ezagutzak eta trebetasunak etengabe eguneratzea herritarrei zerbitzu egokia emateko; hitzarmenaren helburua, zehazki, honako hau da: Bizkaiko Foru Aldundiko langile publikoen prestakuntzari dagokionez, bi

SERVICIO DE SELECCIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL REF: MJVI/EZM
Informe nº 107/2024

Asunto: ACUERDO por el que se aprueba la prórroga del Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Instituto Vasco de Administración Pública para la realización del plan de formación de la Diputación Foral de Bizkaia.

## ANTECEDENTES

PRIMERO.- La Diputación Foral de Bizkaia formalizó con fecha 08 de enero de 2020, un convenio de colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública conscientes de la relevancia de la formación del personal y actualización constante de sus conocimientos y habilidades para un adecuado servicio a los ciudadanos, con el objeto de establecer y regular el marco de actuaciones conjuntas de ambas en el ejercicio de sus respectivas

erakunde horien baterako jardueren esparrua ezartzea eta arautzea, beren eskumenak eta eginkizunak betez.

competencias y funciones en lo que se refiere a la formación de los y las empleadas públicas de la Diputación Foral de Bizkaia.

Lankidetza-hitzarmena formalizatu aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak horretarako baimena eman zuen, 2019ko abenduaren 17ko erabakiaren bidez.

La formalización del Convenio de colaboración se llevó a cabo previa autorización del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante acuerdo del 17 de diciembre de 2019.

BIGARRENA.-Formalizatutako hitzarmenaren testuan adierazten zenez, hitzarmena lau urtez indarrean egongo zen, alderdiek sinatu eta hurrengo egunetik hasita, eta luzatzeko aukera egongo zen, Sektore Publikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan ezarritako moduan. Artikulu horren arabera, lau urteko indarraldia amaitu aurretik, edozein unetan, sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea beste lau urtez, gehienez ere.

SEGUNDO.- En el texto del Convenio formalizado se indicaba que el Convenio extendería su vigencia durante cuatro años, a partir del día siguiente la de la fecha de la firma por las partes, pudiéndose prorrogar en los términos establecidos en el art. 49 h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, el cual establece que en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto de vigencia de cuatro años, los firmantes del Convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años.adicionales

HIRUGARRENA.- Kontuan hartuta aipatutako lankidetza-hitzarmena formalizatzea eragin zuten inguruabar berberek beren horretan dirautela, alderdiek ez dutela berariaz salatu hitzarmena amaitu baino bi hilabete lehenago (2024ko urtarrilaren 9a baino lehen), eta gaur egun indarrean dagoen araudiak lau urte gehiagorako luzapena egiteko aukera ematen duela, alderdi bientzat interesgarria da hitzarmena beste urtebete luzatzea, 2025ko abenduaren 31ra arte, eta MEMORIA EKONOMIKOA eguneratzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren kargura, hitzarmenaren luzapenaren bidez

TERCERO.- Considerando que subsisten las mismas circunstancias que dieron origen a la formalización del convenio de colaboración de referencia, que no ha existido denuncia expresa de las partes manifestada con dos meses de antelación a la fecha de finalización del convenio (antes del 09 de enero de 2024), y que la normativa actualmente vigente permite realizar una prórroga de hasta cuatro años adicionales, resulta de interés para ambas partes prorrogar el Convenio un año más hasta el 31 de diciembre de 2025, así como la actualización de la MEMORIA ECONÓMICA , para la realización de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gauzatuko diren ekintzak beste urtebetez egiteko, guztira,, 38.750 euroko zenbatekoan..

acciones objeto de la prórroga del convenio por un año más a cargo de la Diputación foral de Bizkaia, por importe total de 38.750€.

## OINARRI JURIDIKOAK

## FUNDAMENTOS JURÍDICOS

LEHENENGOA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, edozein administrazio publikok sinatutako indarreko hitzarmen guztiak lege horretan aurreikusi denari egokitu beharko zaizkio hiru urteko epean, lege hori indarrean jartzen denetik aurrera. Kasu honetan —lau urteko indarraldi jakina duen hitzarmen bat, isilbidezko luzapen bat barik berariazkoa ezarrita duena— indarraldiari dagokionez, 49.h).1 artikuluan ezarritako epea aplikatuko da; alegia, lau urteko epea, gehienez ere hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabakitzen badute. Beraz, urtebeteko luzapen honek betetzen du agindutakoa.

PRIMERO.- Conforme a lo dispuesto en la Disposición adicional octava de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público que establece respecto a los convenios vigentes suscritos por cualquier Administración Pública su adaptación a lo previsto en la citada ley en el plazo de tres años a contar desde la entrada en vigor de la misma, y en lo que se refiere al plazo de vigencia del convenio, en el presente supuesto un Convenio de duración determinada de cuatro años y que no prevee prórroga tácita, sino expresa , se aplicará el plazo previsto en el artículo 49. H).1º de la Ley 4/201; esto es, cuatro años prorrogables por un periodo de hasta cuatro años adicionales cuando los firmantes del convenio lo acuerden unánimente, por lo que la presente prórroga para un año se ajusta a lo exigido.

BIGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da esku artean dugun hitzarmenaren luzapena onesteko eskumena duena, hitzarmena onesteko eskumena baitu; izan ere, hala xedatzen du Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginak— abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onetsia– bosgarren xedapen gehigarrian.

SEGUNDO.- La competencia para la aprobación de la presente prórroga del Convenio que nos ocupa corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia por ser el órgano competente para la aprobación del Convenio en aplicación de lo dispuesto en la Disposición Adicional Quinta del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, aprobado por el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Azaldutako guztia dela bide, sinatzen duenak proposamena hau aurkezten dizu, azter dezazun:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren bigarren luzapena onartzea, I. eranskin gisa erantsi den proiektuan ezartzen diren baldintzetan. Eranskin hori ebazpen honi erantsi zaio ondorio guztietarako.

BIGARRENA.- Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuari gaikuntza ematea erabakitako luzapena gauzatuko den agiria sinatzeko. Bai eta hura garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan ere.

HIRUGARRENA.- Horretarako, aurrerakin gisa, HOGEITA HAMAZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO (38.750 €) gastua baimentzea eta bere gain hartzea. Zenbateko horiek ordaintzeko, 0702 G920.108/23904/0000 aurrekontu-izendapena dago, zenbateko hauetan zehaztuta:

2025rako, 38.750 €-ko zenbatekoa, 0702 G920108/23904/0000 2019/0057 partidaren kargura.

Hala ere, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, jasota geratzen da hitzarmen hau eraginkorra izateko, beharrezkoa dela lurralde historikoko aurrekontu orokorretan kreditu egoki eta nahikoa egotea, gastu-espedientea hasten den ekitaldian.

Por todo lo expuesto, la que suscribe tiene el honor de someter a V.I. la siguiente propuesta de:

ACUERDO

PRIMERO.- Aprobar, la segunda prórroga del Convenio de Colaboración con el Instituto Vasco de Administración Pública, en los términos que se fijan en el proyecto que se adjunta como Anexo I, que queda incorporado a la presente a todos los efectos.

SEGUNDO.- Habilitar al Ilmo. Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales para la firma del documento en el que se materialice la prórroga acordada . así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.

TERCERO.- A tal fin, autorizar y contraer las cantidad total de gasto de carácter anticipado de TREINTA Y OCHO MIL SETECIENTOS CINQUENTA EUROS (38.750€). Para el abono de las citadas cantidades existe consignación presupuestaria 0702 G920.108/23904/0000, que se concreta en las siguiente cantidad:

Para el año 2025, la cantidad estimada de 38.750€ con cargo a la partida 0702 G920108/23904/0000 2019/0057.

No obstante, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 56 del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, se hace constar que la efectividad de este Convenio queda sometida a que exista crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico del ejercicio en el que se inicie la tramitación del referido expediente de gasto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

LAUGARRENA.- Txoten honek erabaki hau arrazoitzeko balio du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako.

CUARTO.- Sirve de motivación a la presente a los efectos de lo dispuesto en los artículos 35 y 88 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el informe precedente.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari, sail guztietako zerbitzu orokorrei, Funtzio Publikoaren Zuzendariordetza Nagusiari, Fiskalizazio Zerbitzuari eta Aldundian diharduten sindikatuei.

QUINTO.- Notificar el presente Acuerdo al Instituto Vasco de Administración Pública, a los Servicios Generales de todos los Departamentos, a la Subdirección General de Función Pública , al Servicio de Fiscalización y a las Centrales Sindicales operantes en la Diputación.

Dena den, zeuk ebatziko duzu.

No obstante, VI resolverá.

Bilbo, 2024ko abenduaren 10a

Bilbao, a 10 de diciembre de 2024

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

# ANEXO I

**(DEL PROYECTO DE ACUERDO)**

SEGUNDA PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL IVAP

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| **BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EUSKAL INSTITUTUAK 2020KO URTARRILAREN 8AN SINATUTAKO HITZARMENAREN BIGARREN LUZAPENA. GAIA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA-PLANA PRESTATZEA** | **SEGUNDA PRÓRROGA DEL CONVENIO DE 8 DE ENERO DE 2020, CELEBRADO ENTRE LA EXCMA. DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA, RELATIVO A LA REALIZACIÓN DEL PLAN DE FORMACIÓN PARA EL PERSONAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA** |
| **BILDU DIRA:** | **PARTES REUNIDAS:** |
| Batetik, Ager Izaguirre jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. | De una parte, el Ilmo. Sr. Ager Izaguirre Loroño, Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación de Bizkaia. |
| Bestetik, Nagore Alberdi Berasaluze andrea, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko koordinazio eta Kudeaketako idazkaria, erakundearen izenean eta haren ordezkari gisa. | De otra parte, Nagore Alberdi Berasaluze, Secretaria de coordinación y gestión del Instituto Vasco de Administración Pública, en nombre y representación de este Instituto. |
| **ADIERAZTEN DUTE:** | **MANIFIESTAN:** |
| I.- Bizkaiko Foru Aldundiak bere langileen prestakuntza-beharrak bete behar ditu, langile horien ahalmenak eta gaitasunak ahalik eta egokienak eta eguneratuenak izan daitezen beti, eta, horrela, langileek Foru Erakundeak agintzen dituen xedeak eta eginkizunak behar bezala bete ditzaten. | I.- La Diputación Foral de Bizkaia ha de dar respuesta a las necesidades de formación de su personal, a fin de que las capacidades y habilidades de su personal empleado se encuentren en todo momento en el modo más adecuado y actualizado para el cumplimiento de los fines y funciones que la institución Foral tiene encomendados |
| Hori kontuan hartuta, Foru Aldundiak bere prestakuntza-planak prestatu izan ditu, betiere enplegatu publikoek prestakuntza jasotzeko eskubidea dutela eta, ondorioz, administrazio publikoek eskubide hori betearazi beharra dutela ezartzen duten arauak betez (Euskal Enplegu Publikoaren Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua, eta Foru Aldundiaren Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko araudia). | Es por ello, que la Diputación Foral ha materializado sus propios planes de formación, dando cumplimiento a las normas que establecen el derecho del personal empleado público a la formación y el consiguiente deber de las administraciones públicas a procurarla (Ley de Empleo Público Vasco, Estatuto Básico del Empleado Público y Reglamento de estructura orgánica del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral). |
| II.- Bizkaiko Foru Aldundia erakunde nabarmena dela eta hainbat xede eta eginkizun betetzen dituela kontuan | II.- Habida cuenta de la entidad de la Diputación Foral de Bizkaia como institución y de la multiplicidad de fines |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| hartuta, langileen kopurua oso handia da (kuantitatiboki eta kualitatiboki). Langile horientzako prestakuntza-planak askotarikoak dira: lanposturako prestakuntza, sustapenerakoa, karrerako prestakuntza, Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planean jasotzen den prestakuntza, Aldundian lanean hasteko deialdietako hautaketa-prozesuen ondoriozko praktiketako prestakuntza, lan-poltsetako pertsonentzako prestakuntza, eta Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren prestakuntza. | y funciones que lleva a cabo, sus efectivos de personal son, cuantitativa y cualitativamente, muy importantes; y sus planes de formación incluyen tanto la formación para el puesto de trabajo, la promoción y la carrera y la que deriva del Plan de Recursos Humanos de la Institución Foral así como la formación en prácticas derivada de los procesos selectivos de convocatorias de acceso a la entidad, y la formación para integrantes de bolsas; además de la formación que el Servicio de Extinción de Incendios y Salvamento desarrolla. |
| III.- Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) xedeak erakundea sortu zeneko Legean ezarri ziren. Hori horrela izanik, irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartutako Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bateginaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hauek dira IVAPek enplegatu publikoen prestakuntzari lotuta dituen xedeak:<br><br>1. Euskal Herriko administrazio autonomikoko funtzionarioak eta kontratupeko langileak edota beste edozein herri-administraziok edo lege-antolamenduak eskatzen dizkionak prestatzea eta hobetzea.<br><br>2. Lurralde historikoekin, udalekin eta Euskadiko toki-administrazioaren gainerako erakundeekin horien langileak prestatzeko eta hobetzeko lankidetza sustatzea.<br><br>3. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean agintzen dena betetzeko, euskara herri-administrazioan sartzea, hedatzea, erabiltzea eta normalizatzea, baita administrazio-hizkera finkatzea ere. | III.- Los fines del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), fueron establecidos por su Ley de creación. Así, pues, de conformidad con lo dispuesto en el art. 4 del texto refundido de la Ley sobre Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública (aprobado por el Decreto Legislativo 3/2023, de 21 de septiembre), los fines del Instituto más directamente en conexión con la formación del personal empleado público son los siguientes:<br><br>1. La formación y perfeccionamiento del personal funcionario y contratado de la Administración Autónoma del País Vasco, o que cualquier otra Administración Pública o el ordenamiento jurídico pudiera encomendarle.<br><br>2. Fomentar la colaboración con los Territorios Históricos, Municipios y demás entidades de la Administración Local de Euskadi, en la formación y perfeccionamiento de su personal.<br><br>3. La introducción, difusión y aplicación y normalización del euskera en la Administración, así como la fijación de su lenguaje administrativo, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera. |
| IV.- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak uste dute garrantzitsua dela langileak prestatzea eta haien ezagutza | IV.- Tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Instituto Vasco de Administración Pública son conscientes de la relevancia de la formación del personal y |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| eta gaitasunak etengabe eguneratzea, herritarrei zerbitzu egokia eman diezaieten. Erakunde bien ustez gainera, biek elkarlanean lan egin dezakete Bizkaiko Foru Aldundiko langileak prestatzeko, eta hori posible izateaz gainera erabat komenigarria ere bada, prestakuntza hori ahalik eta eraginkorrena izan dadin. | actualización constante de sus conocimientos y habilidades para un adecuado servicio a la ciudadanía, y entienden que no solo es posible, sino también absolutamente conveniente, la colaboración de ambas instituciones en la formación del personal de la Diputación Foral de Bizkaia, a fin de que ésta se desarrolle con la mayor eficiencia posible. |
| V.- Jakina, Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatu publikoak prestatzeko asmoz bi erakundeek egingo duten baterako lanak ezinbestean bete behar ditu erakunde baten eta bestearen arauak, enplegatu publikoak prestatzeari lotutakoak. Baina Bizkaiko Foru Aldundia erakunde handia dela eta zeregin ugari dituela kontuan hartuta, eta bi erakundeek eman ditzaketen ezagutza, esperientzia eta baliabideak aintzat hartuta, bataren eta bestearen jarduerak zehaztu behar dira jardun publikoari eta prestakuntza jasoko duten enplegatuei begira bien arteko elkarlana ahalik eta positiboena izan dadin. | V.- El trabajo conjunto de estas Instituciones en referencia a la formación del personal empleado público de la Diputación de Bizkaia, ha de situarse, evidentemente, en el marco de las normas que incumben a una y otra administración en referencia al ámbito de la formación del personal público; pero habida cuenta de la dimensión y la entidad de la Diputación Foral de Bizkaia, así como del conocimiento, experiencia y medios que ambas instituciones pueden aportar, es preciso concretar las actuaciones de una y otra entidad, a fin de que la colaboración entre ambas resulte lo más positiva posible, para el actuar público y para los empleados y empleadas destinatarios de la formación. |
| VI.- Hitzarmen honek administrazioko izaera du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2. artikuluan ezarri denarekin bat.<br><br>Hitzarmen honen edukia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratzen da, bere 6.1. artikuluan ezarri denarekin bat.<br><br>Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) HITZARMEN hau egitea erabaki dute, beheko klausuletan ezartzen diren printzipioak eta jardun-ildoak betez. | VI.-El presente convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el art. 47.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público.<br><br>El contenido del presente convenio queda excluido del ámbito de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre de Contratos del Sector Púbico, de conformidad con el art. 6.1. de la misma.<br><br>Por todo ello, La Excma. Diputación Foral de Bizkaia y el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) acuerdan celebrar el presente CONVENIO que se desarrollará de acuerdo con los principios y líneas de actuación que se establecen en las cláusulas subsiguientes. |
| **KLAUSULAK:** | **CLÁUSULAS:** |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| HITZARMENAREN XEDEA ETA IRISMENA | FINALIDAD Y ALCANCE DEL CONVENIO |
|---|---|
| **Lehena**.- Hitzarmenaren luzapena honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiak eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatu publikoen prestakuntzari lotuta izango duten baterako jarduera-esparrua ezarri eta arautzea, bakoitzak bere eskumenak eta eginkizunak betez. | **Primera**.- La presente prórroga del Convenio tiene por objeto establecer y regular el marco de actuaciones conjuntas de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia y el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), en el ejercicio de sus respectivas competencias y funciones en lo que se refiere a la formación de las y los empleados públicos de la Diputación Foral de Bizkaia. |
| ERAKUNDE BAIKOITZAREN JARDUERA, HITZARMEN HONEN ESPARRUAN | ACTUACIONES DE UNA Y OTRA INSTITUCIÓN, EN EL MARCO DE ESTE CONVENIO |
| **Bigarrena**.- Bizkaiko Foru Aldundiak bere langileek zer prestakuntza behar duten aztertuko du, eta, horretarako, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari laguntza eskatu ahal izango dio, behar badu. | **Segunda**.- La Diputación Foral de Bizkaia llevará a cabo el proceso de detección de necesidades de formación del personal de su entidad, proceso para el que, si así lo precisare, podrá requerir de la colaboración del Instituto Vasco de Administración Pública. |
| **Hirugarrena**.- Aurkitu diren prestakuntza-beharrizanak oinarritzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak urteko prestakuntza-plana egingo du. | **Tercera**.- De acuerdo con las necesidades de formación detectadas, la Diputación Foral de Bizkaia elaborará su plan de formación anual. |
| **Laugarrena**.- Prestakuntza-plana egin ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak –organo eskudunek hartu dituzten erabakiak betez– proposatzen dizkion prestakuntza-ekintzen zerrenda aurkeztuko dio Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari (IVAP), hitzarmena betez kudea ditzaten. Zerrendarekin batera, ikastaroaren helburuei eta edukiei buruzko zehaztapenak ere emango dizkio. | **Cuarta**.- Elaborado su plan de Formación, la Diputación Foral de Bizkaia presentará al IVAP la relación de acciones formativas que -en virtud de los acuerdos adoptados por los órganos competentes— propone al Instituto Vasco de Administración Pública para que se gestionen en el marco de este convenio, acompañando las determinaciones correspondientes sobre los objetivos y contenidos del curso. |
| **Bosgarrena**.- IVAPek bere sisteman erregistratuko ditu hitzarmen honen harira adostutako prestakuntza-ekintzak. | **Quinta.-** El IVAP dará de alta en su sistema a las acciones formativas acordadas en el marco de este convenio. |
| **Seigarrena**.- Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmenaren esparruan egingo diren prestakuntza-ekintzen berri emango die interesa izan dezaketen langileei. | **Sexta.-** La Diputación Foral de Bizkaia realizará las labores de difusión precisas de las actividades de formación que se van a desarrollar en el marco de este convenio al potencial personal destinatario. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| **Zazpigarrena**.- Aplikatu beharreko barne-prozeduraren arabera, Foru Aldundiak erabakiko du zein langilek parte hartuko duten hitzarmenean zehaztutako prestakuntza-ekintza bakoitzean, eta, horren ostean, informazio hori IVAPen prestakuntza-ikastaroen plataforman sartuko du.<br><br>Horretarako, behar diren informatika-sistemak jarriko dira, edota IVAPekin solaskide arituko diren Bizkaiko Foru Aldundiko pertsona edo pertsonak izendatuko dira. | **Séptima.-** Una vez que la Diputación Foral determina, según el procedimiento interno de aplicación, las personas que han de participar en cada actividad formativa incluida en este Convenio, cargará dicha información en la plataforma de los cursos de formación del IVAP.<br><br>A estos efectos, se habilitarán los sistemas informáticos precisos y/o se nombrará a la persona o personas de la Diputación Foral de Bizkaia que actuarán como personas interlocutoras con el IVAP. |
| **Zortzigarrena**.- Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu eta kudeatuko ditu hitzarmen honetan zehaztutako prestakuntza-ekintzak. | **Octava.-** Corresponderá a la Diputación Foral de Bizkaia la organización y gestión de las actividades formativas incluidas en este convenio. |
| **Bederatzigarrena**.- Ikastaroa amaitzen denean, Bizkaiko Foru Aldundiak ikastaroan parte hartu dutenen zerrenda bidaliko dio IVAPi. Zerrenda horretan honako hauek ere zehaztuko dira: ikasle bakoitzaren parte- hartzea (ehunekotan) eta aprobetxamendu- proben emaitzei lotutako datuak, halakorik egin denean. | **Novena.-** Finalizado cada curso, la Diputación Foral de Bizkaia remitirá, al IVAP, detalle de las asistencias al curso, refiriendo el porcentaje de asistencia de cada alumno o alumna; los datos relativos a los resultados de las pruebas de aprovechamiento, en los supuestos que se hubieran realizado. |
| **Hamargarrena**.- IVAPek, prestakuntza-ekintzetako parte-hartzeei eta kasuan kasuko aprobetxamendu-probei buruzko datuak kontuan hartuta, prestakuntza-ekintza bakoitzean izan diren parte-hartzaileen ziurtagiriak egingo ditu hilabeteko epean.<br><br>IVAPek ziurtagiri digitalak emango ditu. IVAPen prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten ikasleak IVAPen webgunetik sar daitezke, zuzenean, beren ziurtagiri digitalera: 'IVAPekiko izapideak' izeneko atalean sartu, webean dauden ziurtagiri digitaletako bat erabiliz identifikatu, ziurtagiriak hautatu eta, hor barruan, prestakuntza-ekintzen ziurtagirietara sartu. | **Décima.-** De acuerdo con los datos relativos a asistencias y, en su caso, los resultados de las pruebas de aprovechamiento de las acciones formativas, el IVAP extiende los certificados relativos a la participación en esa acción formativa que correspondan en el plazo de un mes.<br><br>Los certificados que emite el IVAP son digitales y el alumnado que tome parte en las acciones formativas del IVAP, podrá acceder directamente a su certificado digital, desde la web del IVAP, en el apartado trámites con el IVAP y, una vez de identificarse con alguno de los certificados digitales admitidos que ahí se le indican, seleccionando certificaciones, y, dentro de ellas, certificados de cursos de formación. |
| **EDUKI EKONOMIKO** | **CONTENIDO ECONÓMICO** |
| **Hamaikagarrena**.- Urte baterako | **Undécima.-** El presupuesto total previsto |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| hitzarmenean aurreikusten diren ekintzak egiteko aurrekontu osoa, urte baterako aurreratua Bizkaiko Foru Aldundiaren kargura, HOGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO (38.750 €) eurokoa da. | para la realización de las acciones objeto del convenio para un año a cargo de la Diputación Foral de Bizkaia es de TREINTA Y OCHO MIL SETECIENTOSCINQUENTA EUROS (38.750€). |
| Zenbateko hau Administrazio Publiko eta Justiziako sailburuaren 2020ko ekainaren 20ko Aginduak (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbaketa ezartzen duenak, 2022ko uztailaren 8ko EHAA, 132. zk.) ezarritakoaren arabera kalkulatu da. | Esta cuantía se ha calculado según la Orden de 20 de junio de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se fija la cuantía de los precios públicos de las actividades y servicios que presta el Instituto Vasco de Administración Pública (BOPV nº132, de 8 de julio de 2022). |
| Hitzarmen hau sinatzearen ziozko betebeharrak ordaintzeko baliabide ekonomikoak Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretatik etorriko dira. Aipatu kopuruak ordaintzeko, aurrekontu-esleipena dago (0702 G920.108/23904/0000), kopuru honetan zehazten da: | Los recursos económicos destinados a sufragar las obligaciones derivadas de la suscripción de este Convenio procederán de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia. Para el abono de las citadas cantidades existe consignación presupuestaria (0702G920.108/23904/0000), que se concreta en la siguiente anualidad: |
| -2025. urterako, 38.750 €-ko zenbatekoa, 0702 G920108/23904/0000 2019/0057 partidaren kargura. | - Para el año 2025, la cantidad estimada de 38.750€ con cargo a la partida 0702 G920108/23904/0000 2019/0057. |
| Hala ere, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arau-emaileak (Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duenak) 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau eraginkorra izan dadin kreditu egokia eta nahikoa egon behar da lurralde historikoko aurrekontu orokorretan, aipatu gastu-espedientea izapidetzen hasten den ekitaldian. | No obstante, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 56 del Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, se hace constar que la efectividad de este Convenio queda sometida a que exista crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico del ejercicio en el que se inicie la tramitación del referido expediente de gasto. |
| Ikastaroen matrikulak kobratzeko eta ordaintzeko izapideak arinago eta errazago egiteko asmoz, IVAPek hiru hilean behin bidaliko dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari aurreko denboraldian amaitu diren ikastaroen fakturak. Zein ikastaro egin diren eta horietako bakoitzean zenbat matrikula egin diren zehaztuko du faktura horietan. | A fin de agilizar y simplificar las cuestiones referentes al cobro y pago de las matrículas de los cursos que correspondan, el IVAP remitirá, trimestralmente, a la Diputación Foral de Bizkaia, las facturas relativas a los cursos finalizados en el periodo anterior, con indicación de los cursos a que se refieren y el número de matrículas |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| | correspondiente a cada uno de ellos. |
| BALIABIDE MATERIALAK | MEDIOS MATERIALES |
| **Hamabigarrena**.- Bizkaiko Foru Aldundiak jarriko ditu prestakuntza-ekintzak egiteko behar diren gelak, baita baliabide materialak ere (ordenagailuak, kanoiak…) | **Duodécima.-** La Diputación Foral de Bizkaia aportará las salas en las que hayan de desarrollarse las actividades formativas, así como los recursos materiales precisos para el desarrollo del curso (ordenadores, cañones…) |
| **Hamahirugarrena**.- IVAPek prestakuntza-ikastaroen plataforma eskainiko du, hitzarmen honen esparruan egingo diren prestakuntza-ekintzak kudeatzeko. | **Decimotercera.-** El IVAP aportará su plataforma de cursos de formación, a fin de poder realizar la gestión de las actividades de formación realizadas en el marco de este Convenio |
| JARRAIPEN BATZORDEA | COMISIÓN DE SEGUIMIENTO |
| **Hamalaugarrena**.- Hitzarmen honetan ezartzen diren alderdien jarraipenari dagokionez bi erakundeek izango duten lankidetza ezartzeko, hitzarmenaren Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzordeak lau kide izango ditu: erakunde bakoitzeko bi ordezkari. Batzordearen erabakiak aho batez hartuko dira.<br><br>Batzordeak ebatziko ditu hitzarmena garatzean sortzen diren gorabeherak, baina, ebazpena beste organo batzuek eman behar dutenean, Batzordeak ebazpen-proposamena emango du eta eskumena duten organoei helaraziko die.<br><br>Gorabeherak konpontzeaz eta proiektua betetzen den eta zenbateraino gauzatu den eta zertan hobetu daitekeen ebaluatzeaz gain, SPAJLaren 52.3 artikulutik datozen eginkizun guztiak bete beharko ditu | **Decimocuarta.-** Para la materialización de la colaboración entre ambas instituciones en el seguimiento de los extremos establecidos en este Convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Convenio que estará formada por cuatro miembros, dos en representación de cada una de las partes. Los acuerdos de la Comisión se adoptarán por unanimidad.<br><br>La Comisión resolverá las incidencias que se hayan producido en el desarrollo del convenio, resolución que, en los supuestos cuya resolución competa a otros órganos, tendrá carácter de propuesta que habrá de ser elevada a los órganos competentes.<br><br>Sus funciones serán además de resolver las incidencias y evaluar el cumplimiento del proyecto su grado de ejecución y posibles mejoras, todas aquellas derivadas del art 52.3 LRJSP. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| **<u>Hamabosgarrena</u>**.- Jarraipen Batzordea urtean bi aldiz batuko da gutxienez, eta dagokion akta idatzikoda. Batzordeburuaren kargua txandakatu egingo dute hitzarmena sinatzen duten erakundeek; lehenengo batzordeburua Bizkaiko Foru Aldundikoa izango da.<br><br>Deialdiak bilera egin baino 15 egun lehenago egingo dira, eta, bilera baino 7 egun lehenago gutxienez, gastua justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da, SPAJLaren 49 f) artikuluan eskatzen dena.<br><br>Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindutako zenbatekoak justifikatzeko, dagokion kontabilitate-agiria aurkeztuko da, egindako prestakuntza-ekintza guztiak biltzen dituen memoriarekin batera; memoria horretan, ikastaro bakoitzean ordaindutako matrikulak eta ordainketa izapidetze-bidean dutenak jasoko dira. | **<u>Decimoquinta.-</u>** La Comisión de Seguimiento se reunirá, al menos, dos veces al año, de lo actuado se levantará la pertinente Acta desempeñando la Presidencia de la misma alternativamente, cada una de las Instituciones signatarias, comenzando por la Diputación Foral de Bizkaia.<br><br>Las convocatorias se realizarán con 15 días de antelación a la fecha de celebración de la reunión y al menos 7 días antes de esta deberá presentarse la documentación de la justificación del gasto exigida por el art.49 f de LRJSP.<br><br>La justificación de las cantidades abonadas por la Diputación Foral de Bizkaia se acreditará a través del correspondiente documento contable junto con una memoria que comprenderá todas las acciones formativas realizadas, en la que conste las matrículas abonadas en cada curso y aquellas cuyo pago se encuentre en tramitación. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| AMAIERAKO XEDAPENAK | DISPOSICIONES FINALES |
|---|---|
| **Lehena**.- Hitzarmen honen luzapena urte bateko indarraldia izango du, 2025 urtarrilaren 9tik zenbatzen hasita, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan ezarri diren terminoetan | **Primera**.- La prórroga de este convenio tendrá una vigencia de un año, a partir del día 9 de enero de 2025, en los términos establecidos en el art. 49. h) de la de la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico de Sector público. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| **<u>Bigarrena</u>**.- Hitzarmen hau azkendu egingo da helburuan sartzen diren jarduerak betetzean edo hitzarmena suntsitzeko arrazoi hauetako bat gertatzen bada: | **<u>Segunda.</u>**- El presente Convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las siguientes causas de resolución: |
| **a)** Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hura luzatzeko erabakirik hartu gabe. | **a)** El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo. |
| **b)** Alde sinatzaile guztiak ados jartzea. | **b)** El acuerdo unánime de todas las partes firmantes |
| **c)** Aldeetako batek ez betetzea bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak. | **c)** El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes. |
| **d)** Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio adostutakoa hautsi duen alderdiari, epe jakin baten barruan bete ditzan betegabetzat jotako betebehar edo konpromisoak. Errekerimendua hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta sinatu duten gainerako alderdiei jakinaraziko zaie.<br><br>Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko dio badagoela hitzarmena suntsitzeko arrazoia, eta hitzarmena suntsitua dagoela ulertuko da. Arrazoi horren ondorioz hitzarmena suntsitzen bada, sortutako kalteen ondoriozko kalte-ordaina ezarri ahalko da, hala aurreikusi bada. | **d)** En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.<br><br>Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a la otra parte firmante la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio. La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados si así se hubiera previsto. |
| **e)** Epaileak hitzarmena deuseztatzeko erabakia hartzea. | **e)** Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio. |
| **f)** Hitzarmenean edo gainerako legeetan aurreikusi den eta goian jaso ez den beste edozein arrazoi. | **f)** Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el convenio o en otras leyes |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| **Hirugarrena**.- Hitzarmeneko alderdietatik edozeinek sala dezake hitzarmena, baina, kasu horretan, hasita dauden jarduerak amaituko direla bermatu behar da. Erabaki hori idatziz jakinarazi eta hiru hilabetera amaituko da hitzarmenaren indarraldia. | **Tercera.-** El presente Convenio podrá ser denunciado unilateralmente por cualquiera de las partes contratantes, debiendo garantizarse, en tal caso, la finalización de las actividades ya iniciadas. El convenio finalizará su vigencia a los tres meses de comunicarse por escrito tal determinación. |
| **Laugarrena**.- Hitzarmena sinatu duten alderdietako bakoitzak beste alderdiari jakinaraziko dizkio hitzarmen berrian sartzeko modukotzat jotzen dituen kontuak edo gaiak, alderdiak ados jarri ostean hitzarmena aldatu baino lehen. | **Cuarta.-** Cada parte signataria se compromete a poner de manifiesto a la otra parte, aquellos asuntos, temas o ámbitos que considere que deban ser objeto de inclusión en el convenio previa modificación del mismo, por acuerdo de las partes signatarias. |
| **Bosgarrena**.- Bizkaiko Foru Aldundia arduratuko da hitzarmen honetan zehazten den tratamenduaz, hau da, bere langileen prestakuntza-planen kudeaketaz eta garapenaz.<br><br>Beste alde batetik, HAEE-IVAP arduratuko da hitzarmen honetan zehazten den tratamenduaz, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazten dizkion prestakuntza-ekintzak erregistratzeaz eta ondorik ziurtatzeaz.<br><br>Alderdi sinatzaile bakoitzak konpromisoa hartzen du hitzarmen honi datuen babesaren arloan aplikatu beharreko araudia betetzeko: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa. | **Quinta.-** La Diputación Foral de Bizkaia actuará como responsable del tratamiento especificado en el presente convenio, que se refiere a la gestión y desarrollo de los planes de formación de su personal.<br><br>Por su parte, el IVAP actuará como responsable del tratamiento especificado en el presente convenio, que se refiere al registro y posterior certificación de las acciones formativas que le sean comunicadas por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.<br><br>Cada parte signataria se compromete a cumplir la normativa aplicable al presente Convenio en materia de protección de datos: Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales. |

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: SRFF-KRO5-E01J-KNPN
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

| | |
|---|---|
| **<u>Seigarrena. -</u>** (ARAUBIDE JURIDIKOA).<br><br>Hitzarmen hau administrazioaren arlokoa da, 40/2015 Legearen Atariko Tituluko VI. kapituluan xedatutakoaren arabera, eta bat dator Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretuaren 46 artikuluan ezarritako baldintzekin (dekretu horren bidez, onetsi egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina garatzekoa).<br><br>Jarraipen Batzordean ezin ebatz daitezkeen auzigaiak administrazioarekiko auzi- jurisdikzioaren pean jarriko dira, uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.<br><br>Aurreikusi ez den guztirako, araudi hau aplikatuko da: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea; abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina eta haren arautegia onartzen dituena, eta aplikatzekoa den beste edozein xedapen. | **<u>Sexta</u>**.- (RÉGIMEN JURÍDICO)<br><br>El presente convenio tiene naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, cumpliendo con los requisitos establecidos en el artículo 46 de Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014 por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral 5/2006 de 29 de diciembre, General Presupuestaria.<br><br>Las cuestiones litigiosas que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa conforme a lo dispuesto en la ley 29/1998 de 13 de julio.<br><br>Para todo lo no previsto serán de aplicación la ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público y el Decreto Foral Normativo 5/2013 de 3 de diciembre por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006 de 29 de diciembre, General Presupuestaria y su Reglamento así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación |
| Eta ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatzen dute, sinadura elektronikoaren datan. | Y en prueba de conformidad las partes firman el presente Convenio en Vitoria-Gasteiz, a la fecha de al firma electrónica. |
| ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EUSKAL INSTITUTUA (IVAP)<br><br>Nagore Alberdi Berasaluze | BIZKAIKO FORU ALDUNDIA<br><br>Ager Izaguirre Loroño |